

Goizuetako festek harrapatu gaituzte

Gaur hasi eta hurrengo larunbatean bukatuko dira.



“Txope”: “Gipuzkoanok eskuinetik eta mantxoxio joan behar dute, karreteran erdixamarretik ibiltzen dira-ta.”

Gaurtik aurrera hasiko dute Hernaniko piztiak migrazioa Goizuetako parajeetara. Hasiera ofiziala asteleheneko txupinazoak emango du eta adin eta gustu guztiak asetzeko festak izango dira.

UMEEN ERRESUMA

Umeek berea dute asteburua : jolasak, pailazoak, txokolatada,

“Chow de Gorriti” taldearen jaialdia, antzerkia... Umeen ait-zakian inguratuko da, bai, heldu bat baino gehiago.

PELOTARIEN HERRIA

Amabirgin egunetik aurrera egunero bi pelota partidu jokatuko dira, ez nolanhikoak gainera. Hauen artean bereziena ohitura bihurtu den goizuetar eta aranoarren artekoa.

DANTZARIEN PLAZA

Gauero era guztietako erritmoak aukeran: *Gozategi, Pasai txaranga, Sakanako trikitilariak, Trakets, Trikitake, Joselu Anaiak eta Etzakit.*

PIZTIEN PARAJEA

Gauean legatza harrapatu duena goizaldera zezenak ez harrapatzea espero dugu. Parran-dan ikusten direnez gain, Gipuzkoako bi idi pare indartsuenen arteko dema jokatuko da gaur zortzi, eta aizkolariek enborren puntan ariko dira. Fauna osatzeko, festetan ez da bertsolaririk faltako. □

AUTOBUSAK

OHIZKOAK

Astean zehar

Goizuetatik: 9:00-15:00

Hernanitik: 12:00-19:00.

BEREZIAK

Abuztuak 19 larunbata

Goizuetatik: 16:00-18:30

Hernanitik: 17:00-19:30

Abuztuak 20 igandea

Goizuetatik: 8:30-15:30

Hernanitik ez da aterako

OHARRA

Abuztuaren 15a jai da eta ez da autobusik aterako.

Kale batzuk asfaltatuko dira 16tik 25era

Elkano, Portale Txoko, Lizeaga, Atzieta kaleetan eta Zikuñaga eta Sagastialde auzoetan ariko dira.



Lizeaga kalea goitik behera txukunduko dute.

Hernaniko udalak kaskoko eta beste auzo batzuetako guneak asfaltatuko ditu. Abuztuaren 16an ekingo diete asfaltatze lanei, eta 25era arte luzatuko dira.

KASKOA KASKATUZ

Hernaniko erdigunean Elkano, Portale Txoko eta Atzieta (Plaza Berri eta Zinko Enea artean) kaleak dira txukunduko dituztenak. Bertan 16tik 18ra ariko dira.

AUZOAK HIRIBURU

Hernaniko kale hurrunduenak ere dotore asko geratuko dira.

Lizeagako malda goitik behera berrituko dute 16tik 18ra bitartean.

Zikuñaga auzora beranduxeago iritsiko da asfaltatze lana, 21etik 23ra hain zuzen.

Eta ondoren Sagastialde auzoan jardungo dute, 23tik 25era.

OHARRA

Asfaltatze lana eguraldiaren menpe dago eta udaltzaingorak kartelak aterako ditu auzo bakoitzean zehatz mehatz zein egunetan ariko diren abisatzeko. Kontuz, beraz, egun horietan. □

Zure publizitatea

hemen

HERNANIKO kronika

☎ 943 330899

kronika@topagunea.com

HERNANIARTUTAKO GOIZUETARRAK



Ezkerretik hasita Juana Mari Gartziaarena, Ixabel Salaberria eta Maixus Salaberria.

“Orain egunez gehiago ibiltzen gara, eta garai batean gauetan bakarrik.”

“Goizuetako festak hobeak dira, Hernaniko-etan lan egin behar baitugu.”

“Egun politena Peñarena da. Denek elkarri lotuta egiten dute parranda.”

ITXASPE
ARRANDEGIA

Antziola 5 - Tel. 943 330 365
20120 HERNANI

URGASKA, S.L.

GAS INSTALAKUNTZA
MATERIAL SALMENTA

K21

* ASISTENTZIA TEKNIKOA,
GAS ETA BERONGINTZAN.
* GAS PROPANO, BUTANO
ETA NATURAL MANTENUA

Aristizabal 9 Beh
Tel: 943 33 37 4

Esنال eta Oiaga aurrez aurre gaur Ribavellosan

Esنال eta Oregi, Oiaga eta Mendiaren aurka ariko dira. Iosuk bere bigarren partidua du gaur profesionaletan, Iñakik ordea, eskarmentu dezentea du.



Ea, harrapatu ezak hori, Iosul!

HERNANIKO bi pelotari profesionalek abuztu guri guria dute. Bihar, adibidez, Nafarroako Ribavellosa herrian ariko dira elkarren aurka 22:30etan.

ETXETIK URRUTI

Iñaki eta Iosuk udaran ez

dute inguru honetan partidu askorik. Jarraitzaileek ondo bete beharko dituzte kotxeko deposituak Teruel, Segobia, Errioxa, Guadalajara eta antzeko lekuetan jarri baitizkie Besagain enpresak partiduak..

GIPUZKOAKO IREKIA

Etetik gertu ikusi nahi dituenak, berriz, datorren larunbaterarte itxaron beharko du. Esنال Alonso lagun duela, Oharrarteta eta Zubilagaren aurka ariko da Donostian *Gipuzkoako Irekian*.

Mokadu goxoa



Iñigo Tolaretxipi
ARIZMENDI jatetxea

OSAGAIK(4 PERTSONA)

Piper beteentzako

Bexamel fina
8 piper berde haundi
Tipula bat
2 baratzi ale
300 gr. hegaluze

Marmitako saltsarako

Patata haundi bat
200 gr. hegaluze
Tipula bat
Litro 1/4 tomate egina.

HEGALUZEZ BETETAKO PIPERRAK MARMITAKO SALTSAN

Piper beteak

Piperrak labean egin gatz, olio eta ur pixka batekin. Hozten utzi.

Tipula eta baratzi xehetua oliotan egin. Ondoren hegaluze txikitua gehitu (ez asko egin).

Piperrak zuritu, barrukiak kendu eta hegaluzez bete.

Marmitako saltsa

Patata eta hegaluzea zati-tu, tipula 4 zati egin eta egosten jarri. Egosi denean egindako tomatea gehitu. Irabiatu (pure egin) eta


txinotik pasa.

Eltze batean marmitako saltsa jarri, gainean piperrak eta bexamelaz estali. Labean eduki 200°C inguruan 3 minututan.

ON EGIN



HITZ BITAN



Abuztuan ez dute denek jai egiten. Kontu erori!

✓ PLATER TIRAKETA

Luis Mari Zerain hernaniarrak irabazi du "foso unibersaleko" Gipuzkoako kopa. Abuztuaren 30ean Deban jokatu zen finalean lehen eta bigarren postuak lortu dituzte hernaniarrek. Hiru tiralari zioazen berdinduta, eta desentzatean Luis Mari Zelarainek 25 plateretatik 25ak jo zituen. Azpiazuk, berriz, bakararra hutsegina eta bigarren geratu zen. □

✓ MOBILIZAZIOAK

Ekain Ruizen heriotza dela eta mobilizazioak izan ziren atzo ere. Kotxe karabana eta manifestaldia egin ziren Hernaniko kaleetan. □

A G E N D A

❖ GOIZUETAKO FESTAK

Idoia Beratarbideren
marrazki eta oleo erakusketa eskolotako jangelan.

Umeen eguna

⇒ 11:00 umeentzat jolasak eta toka eta xake txapelketa.

⇒ 17:30 "Colins Clow" pailazoak plazan.

⇒ 18:30 txokolate jana.

⇒ 19:30 "Show de Gorriti" taldea plazan.

⇒ Egun osoan zehar

HERIOTZAK

Maria Aroca Martin anderea.

Abuztuaren 10ean hil zen 31 urte zituela.

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943464622
943 335533
- ▶ Anbulatorioa: 943 557750

✚ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: **Correa**
Antziola, 44
☎ 943336022
- ▶ Gaeuz: **Tanco**
Urnieta. San Juan, 36
☎ 943550942